


ISEI - IVEI

**Rs8. DERRIGORREZKOAREN ONDOKO
BIGARREN HEZKUNTZA BUKATUTA IZATEA**





ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA

Edizioa: 2013ko abendua

© ISEI-IVEI-k argitaratua

ISEI-IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatuta eta Ikertzeako Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

LAN TALDEA

Araceli de Francisco

M^a Paz Martínez

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta



Sarrera	4
Rs8.1 taula eta grafikoa: Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.	6
Rs8.2 taula: Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera. Autonomia erkidegoetako datuak.	7
Rs8.3 taula eta grafikoa: Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Autonomia erkidegoetako datuak. 2011. urtea.	9
Rs8.4 taula eta grafikoa: Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan.	10
Rs8.5 taula eta grafikoa: Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Europar Batasuneko 27 herrialdeetako datuak. 2011. urtea.	12



DERRIGORREZKOAREN ONDOKO BIGARREN HEZKUNTZAKO TITULUA (HNSN 3A, 3B ETA 3C) GUTXIENEZ LORTU DUEN 20-24 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN EHUNEKOA.

Europar Batasunaren helburua 2010. urterako¹: 20-24 urte bitarteko biztanleen % 85ek gutxienez goi mailako bigarren hezkuntzako ikasketak (HNSN² 3) bukatuta izatea.

Oso garrantzitsua da biztanleria helduaren ehuneko handi batek goi mailako bigarren hezkuntzako titulua lor dezan, biztanleria orokorraren hezkuntza-maila, eta bereziki biztanle langileen hezkuntza-maila, igotzeko.

Hezkuntza-maila horrek ematen duen prestakuntza eta gaitasuna, goi mailako hezkuntzara joateko izaera propedeutikoa izateaz gain, berez bukaerako prestakuntza bezala har daiteke, gazteei goi mailako ikasketan eta lan munduan integratzeko behar diren giza eta adimen heldutasuna eta gaitasun teknikoa ematen baitizkie. Kontuan izan behar da enplegu-tasa handiagoa dela Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzako ikasketak bukatu dituzten pertsonen artean ikasketa horiek bukatu ez dituztenen artean baino

Gaur egun ezagutzen oinarritutako gizartean egoki parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzak ematen den oinarria edukitzea. Izan ere, ELGAko herrialdeetan goi mailako bigarren hezkuntza gutxieneko hezkuntza-maila bezala hartzen da lan-merkatuan postu egoki eta lehiakor bat aurkitzeko.

Europar Batasuneko 27 herrialdeetan 2011n batez beste goi mailako bigarren hezkuntzako ikasketak bukatuta dituzten biztanleen ehunekoa % 79,5 zen, eta horrek adierazten du urte horretarako finkatutako helburua (% 85) ez dela lortu. 2000. urteaz geroztik izandako bilakaera geldoa baina etengabea izan da, hamarkada osoan 2,9 puntu baino ez baita hazi. Hala ere, zenbait herrialdek –Eslovakia (% 93,3), Txekiar Errepublika (% 91,7), Eslovenia (% 90,1), Polonia (% 90,0)– aise bete dute helburua, eta beste batzuek –Suedia (% 88,7), Zipre (% 87,7), Irlanda eta Lituania (% 86,9)– 2011n asentatu dira. EB-27ko 11 herrialdek bete dute helburua. Ehunekorik apalena duten herrialdeen artean Malta (% 58,2) eta Espainia daude, Maltak 2000tik 2011ra 18,3 puntuko igoera izan badu ere. Espainiak (% 66 2000n; % 61,7 2011n) jaitsiera bat izan du, Danimarkak eta Luxenburgok bezala. Beste herrialde batzuek, Austria eta Hungaria kasu, ehunekoa mantendu egin dute hamarkadan zehar.

Euskadin, 2000-2011 aldian, derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua lortu duten adin horretako biztanleen ehunekoa nahiko egonkor mantendu da, % 80-% 81 tartearen inguruan, 2003an (% 78,3) eta 2009an (% 76,9) izan ezik. 2011n jaitsiera bat (% 78,5) izan da berriro, atzera 2003ko mailara garamatzana, baina ez da 2009koa

¹ Helburu hau ez da 2020rako helburu bezala hartzen; aurrerantzean eskola uzte goiztiarrari buruzko informazio osagarria eskaintzen duen adierazle bezala hartuko da.

² Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua (HNSN). (ISCED ingelesez; CINE gaztelaniaz).



bezainbestekoa izan. 2010ean Euskadiko ehunekoa berriro igo da % 80ra, 2009an 5 puntuko jaitsiera izan arren, 2011n % 78,5ean geratu arte. Alderdi horri dagokionez, azpimarratu behar da, aipatutako 11 herrialdeek lortu duten helburua ez dela lortu, eta gainera hamarkada horretan derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekoa mantendu ere ez dela egin, 3 puntuko jaitsiera nabarmena izan baitu.

Sexuaren aldagaia kontuan hartzen badugu, 2011n graduatuen ehunekoa gizonezkoen artean % 76,9 dela ikus dezakegu, eta emakumezkoen artean % 80,1. Aurreko urtekoarekiko jaitsiera bi sexuetan gertatu da, % 85 lortzetik emakumezkoak hurbilago dauden arren. Hala ere, aipatu behar da sexuen arteko aldea nabarmenki jaitsi dela hamarkadan zehar, 2000n 11,9 puntukoa izatetik 2011n 3,2 puntukoa izatera pasa baita.

Espainiaren kasuan, graduatuen ehunekoa jaitsi egin da 2000tik (% 66) 2011ra (% 61,7), jaitsiera autonomia erkidegoetan ezberdina izan bada ere. Guztietan ehunekoaren jaitsiera bat izan da, Balear Uharteetan (% 55,4), Extremaduran (%57,2), (Galizian (% 67,7), Murtzian (% 57,6) eta Ceutan eta Melillan (% 52,6) izan ezik, erkidego horietan igoera bat izan delako. Autonomia erkidegoetako batez bestekoa 2011n, arestian aipatu den bezala, % 61,7koa zen. Ehunekorik handiena (% 80,2) Nafarroak zuen, eta bigarrena (% 78,5) Euskadik. Apur bat beherago Asturias eta Madril daude (% 70). Beste muturrean, beheranzko hurrenkeran, Ceuta eta Melilla, Kanariar Uharteak eta Gaztela-Mantxa daude.

Aipatu beharrekoa da 2000-2011 hamarkadan, Espainiako joera eta ondorioz autonomia erkidego gehienetakoa, beheranzkoa izan dela, baina europar herrialdeetan derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako graduatuen kopurua apurka igo dela.

Gainera, EB-27 delakoan ere, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko alde nabariak ikusten dira, herrialde batetik bestera asko aldatzen diren arren. Aldeak mantendu egiten dira urteetan zehar.

Hartara, 2011. urtean, Europar Batasuneko herrialdeetan, eta baita autonomia erkidegoetan eta Euskadin ere, goi mailako bigarren hezkuntzako titulua lortu duten emakumezkoen ehunekoa gizonezkoen ehunekoa baino handiagoa da kasu guztietan. Espainiaren kasuan, gauza bera gertatzen da autonomia erkidego guztietan, inolako salbuespenik gabe. Sexuen arteko batez besteko aldea Espainian 13,2 puntukoa da; alderik handiena (21,1 puntu) Gaztela-Mantxan gertatzen da, eta alderik txikiena (2,6 puntu), Euskadin. Europar Batasun osoa kontuan hartzen badugu, 2011. urtean gizonezkoen eta emakumezkoen arteko batez besteko aldea 5,7 puntukoa da. Alderik handiena duten herrialdeak Espainia (14,7 puntu), Malta (13,6 puntu), Portugal eta Danimarka (biak 13 puntu) dira. Alderik txikiena duten herrialdeen artean Eslovakia (1,4 puntu), Txekiar Errepublikak (2,2 puntu) eta Hungaria (2,5 puntu) daude. 2011n Bulgarian bakarrik gertatu da goi mailako bigarren hezkuntzako titulua lortu duten gizonezkoen ehunekoa (% 86,2) emakumezkoen ehunekoa (% 84,8) baino handiagoa izatea.




Rs8.1 taula eta grafikoa:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.

Urtea*	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
2000	81,5	75,7	87,6	11,9
2001	81,4	76,4	86,5	10,1
2002	80,9	78,6	83,4	4,8
2003	78,3	73,2	83,7	10,5
2004	81,5	77,7	85,5	7,8
2005	81,0	76,3	86,0	9,7
2006	81,2	75,3	87,3	12,0
2007	80,8	75,3	86,6	11,3
2008	80,1	75,0	85,4	10,4
2009	76,9	69,3	84,7	15,4
2010	80,1	78,8	81,4	2,6
2011	78,5	76,9	80,1	3,2

¹Balio positiboek derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute.

*Aldiko datuak urtekoak dira eta EPA-2005 teknologiarekin kalkulatu dira. Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.





Rs8.2 taula:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera. Autonomia erkidegoetako datuak.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Espainia	66,0	65,0	63,7	62,2	61,2	61,8	61,6	61,1	60,0	59,9	61,2	61,7
Andaluzia	58,4	58,6	56,4	54,2	52,8	53,1	52,3	54,0	53,0	53,0	53,6	55,2
Aragoi	75,0	75,5	68,0	71,3	70,1	70,8	67,9	66,4	67,3	68,7	67,2	64,6
Asturias	71,6	73,8	72,4	64,6	66,9	72,2	67,0	70,2	72,8	70,8	68,6	70,2
Balearr Uharteak	51,1	50,7	54,2	52,2	51,1	51,9	51,0	47,6	48,2	46,5	49,7	55,4
Kanariak	55,8	54,5	59,3	59,1	58,4	59,3	54,4	52,1	55,5	57,1	56,1	53,8
Kantabria	70,9	69,8	67,1	65,3	67,0	71,8	69,6	67,5	70,4	65,3	63,3	68,9
Gaztela eta Leon	70,3	69,7	70,0	67,6	70,2	66,6	67,1	67,4	67,1	66,0	66,2	60,7
Gaztela-Mantxa	59,0	57,7	55,8	55,5	55,6	55,0	54,2	54,1	51,7	55,0	54,9	55,5
Katalunia	67,8	65,4	65,0	60,9	59,4	61,2	65,7	61,2	59,4	61,4	61,7	62,7
Valentziako E.	62,3	58,4	58,1	58,4	58,6	61,0	61,8	61,4	59,1	56,7	59,5	59,3
Extremadura	51,8	55,5	57,3	55,7	51,9	53,9	54,6	55,4	53,6	52,9	56,6	57,2
Galizia	65,0	66,6	66,8	69,2	68,8	69,2	67,5	68,0	66,2	63,4	66,9	67,7
Madril (Erk.)	77,9	75,7	72,0	72,2	68,6	67,9	66,4	67,2	65,4	66,1	68,9	70,2
Murtzia	57,2	58,4	56,0	52,9	51,7	53,0	51,9	51,8	51,0	54,1	56,2	57,6
Nafarroa (F. Erk.)	82,3	79,8	75,6	75,0	73,7	77,4	82,9	78,3	77,3	74,4	76,6	80,2
Euskadi	81,5	81,4	80,9	78,3	81,5	81,0	81,2	80,8	80,1	76,9	80,1	78,5
Errioxa	70,7	71,9	69,7	63,2	59,8	67,8	64,8	62,1	59,3	61,4	63,5	59,8
Ceuta eta Melilla	51,4	56,1	53,7	53,6	50,6	46,2	39,4	37,5	43,2	50,3	42,9	52,6


Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (INE). Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005).



Rs8.2 grafikoa:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoa. Autonomia erkidegoetako datuak. 2006. eta 2011. urteak.



Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekorik handienetik txikienera ordenatua, "2011. urtea" irizpidearen arabera.

Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (INE). Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005).




Rs8.3 taula eta grafikoa:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Autonomia erkidegoetako datuak. 2011. urtea.

	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
Espainia	61,7	54,5	69,2	14,7
Andaluzia	55,2	47,0	63,9	16,9
Aragoi	64,6	58,6	70,8	12,2
Asturias	70,2	65,1	75,5	10,4
Balear Uharteak	55,4	47,4	63,6	16,2
Kanariak	53,8	49,4	58,2	8,8
Kantabria	68,9	57,9	80,2	22,3
Gaztela eta Leon	60,7	50,7	71,3	20,6
Gaztela-Mantxa	55,5	43,7	67,8	24,1
Katalunia	62,7	55,1	70,6	15,5
Valentziako E.	59,3	52,9	65,8	12,9
Extremadura	57,2	47,4	67,5	20,1
Galizia	67,7	60,1	75,6	15,5
Madril (Erk.)	70,2	64,9	75,5	10,6
Murtzia	57,6	50,4	65,2	14,8
Nafarroa (F. Erk.)	80,2	74,6	85,9	11,3
Euskadi	78,5	76,9	80,1	3,2
Errioxa	59,8	52,7	67,2	14,5
Ceuta eta Melilla	52,6	47,5	57,5	10,0

¹Balio positiboek derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute. Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.



Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekorik handienetik txikienera ordenatua, "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: Espainiako Estadística Institutua (INE). Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005).



Rs8.4 taula:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
EB (27 herrialde)	76,6	76,6	76,7	77,1	77,3	77,5	77,9	78,1	78,4	78,6	79,0	79,5
Belgika	81,7 (b)	81,7	81,6	81,2	81,8	81,8	82,4	82,6	82,2	83,3	82,5	81,6
Bulgaria	75,2	78,1 (b)	77,4	76,3	76,1	76,5	80,5 (i)	83,3	83,7	83,7	84,4	85,5
Txekiar Errepublik	91,2	90,6	92,2	92,1	91,4	91,2	91,8	91,8	91,6	91,9	91,9	91,7
Danimarka	72,0	78,4 (i)	78,6	76,2 (b)	76,2	77,1	77,4	69,4 (b)	68,9	69,9	68,6	70,0
Alemania	74,7	73,6	73,3	72,5	72,8	71,4 (b)	71,9	72,9	74,1	73,7	74,4	75,8
Estonia	79,0 (b)	79,8	81,4	81,5	80,3	82,6	82,0	80,9	82,2	82,3	83,2	82,6
Irlanda	82,6	83,9	84,0	85,1	85,3	85,8	85,8	86,8	87,7	86,4	86,5	86,9
Grezia	79,2	80,2	81,1	81,7	83,0	84,1	81,0	82,1	82,1	82,2	83,4	83,6
Espainia	66,0	65,0	63,7	62,2	61,2	61,8	61,6	61,1	60,0	59,9	61,2	61,7
Frantzia	81,6	81,8	81,7	82,8 (b)	83,0	83,4	83,3	82,4	83,8	83,6	83,2	83,8
Italia	69,4 (b)	67,9	69,6	71,0	73,4	73,6	75,5	76,3	76,5	76,3	76,3	76,9
Zipre	79,0	80,5	83,5	79,5	77,6	80,4	83,7	85,8	85,1	87,4	86,3	87,7
Letonia	76,5	71,7 (i)	77,1 (b)	75,4	79,5	79,8	81,0	80,2	80,0	80,5	79,9	80,4
Lituania	78,9 (i)	80,5	81,3 (b)	84,2	85,0	87,8	88,2	89,0	89,1	86,9	86,9	86,9
Luxenburgo	77,5	68,0	69,8	72,7 (b)	72,5	71,1	69,3	70,9	72,8	76,8 (b)	73,4	73,3
Hungaria	83,5	84,7	85,9	84,7 (b)	83,5	83,4	82,9	84,0	83,6	84,0	84,0	83,3
Malta	40,9	40,1	39,0	45,1 (b)	51,0	53,7	51,1	55,5	51,1	53,3	53,3	59,2
Herbehereak	71,9	72,7	73,1	75,0	75,0	75,6	74,7	76,2	76,2	76,6	77,6 (b)	78,2
Austria	85,1 (b)	85,1	85,3	84,2	85,8 (i)	85,9	85,8	84,1	84,5	86,0	85,6	85,4
Polonia	88,8 (b)	89,7	89,2	90,3	90,9	91,1	91,7	91,6	91,3	91,3	91,1	90,0
Portugal	43,2	44,4	44,4	47,9	49,6	49,0	49,6	53,4	54,3	55,5	58,7	64,4 (i)
Erumania	76,1	77,3	76,3	75,0	75,3	76,0	77,2	77,4	78,3	78,3	78,2	79,6
Eslovenia	88,0 (b)	88,2	90,7	90,8	90,5	90,5	89,4	91,5	90,2	89,4	89,1	90,1
Eslovakia	94,8	94,4	94,5	94,1	91,7	91,8	91,5	91,3	92,3	93,3	93,2	93,3
Finlandia	87,7 (b)	86,1	85,8	85,3	84,5	83,4	84,7	86,5	86,2	85,1	84,2	85,4
Suedia	85,2	85,5 (b)	86,7	85,8	86,0	87,5 (p)	84,9 (p)	85,5 (p)	85,6 (p)	86,4 (p)	85,9 (p)	88,7 (p)
Erresuma Batua	76,7	76,9	77,1	78,6	77,0	78,1	78,8	78,1	78,2	79,3	80,4	80,1
Euskadi*	81,5	81,4	80,9	78,3	81,5	81,0	81,2	80,8	80,1	76,9	80,1	78,5

(b) Segidaren haustura. (i) Ikus oharrak: http://europa.eu.int/estatref/info/sdds/en/strind/innore_ir09.htm. (p) Behin behineko balioa.


*Euskadirako INEK emandako datuak erabili dira.

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.



Rs8.4 grafikoa:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta-3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan. 2006. eta 2011. urteak.



Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekorik handienetik txikienera ordenatua, "2011. urtea" irizpidearen arabera.

*Euskadiko datuak INEk eman ditu.

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.



Rs8.5 taula:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Europar Batasuneko 27 herrialdeetako datuak. 2011. urtea.

	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea ¹
EB (27 herrialde)	79,5	76,7	82,4	5,7
Belgika	81,6	78,3	84,9	6,6
Bulgaria	85,5	86,2	84,8	-1,4
Txekiar Errepublika	91,7	90,6	92,8	2,2
Danimarka	70,0	63,6	76,6	13
Alemania	75,8	73,5	78,1	4,6
Estonia	82,6	79,3	86,1	6,8
Irlanda	86,9	84,7	89,0	4,3
Grezia	83,6	79,8	87,4	7,6
Espainia	61,7	54,5	69,2	14,7
Frantzia	83,8	81,7	85,9	4,2
Italia	76,9	73,5	80,5	7
Zipre	87,7	84,6	90,4	5,8
Letonia	80,4	76,1	84,9	8,8
Lituania	86,9	83,0	91,0	8
Luxenburgo	73,3	68,9	77,7	8,8
Hungaria	83,3	82,0	84,5	2,5
Malta	59,2	52,9	66,5	13,6
Herbehereak	78,2	74,6	81,9	7,3
Austria	85,4	84,0	86,8	2,8
Polonia	90,0	87,4	92,8	5,4
Portugal	64,4 (i)	58,0 (i)	71,0 (i)	13
Errumania	79,6	77,9	81,3	3,4
Eslovenia	90,1	86,8	94,1	7,3
Eslovakia	93,3	92,6	94,0	1,4
Finlandia	85,4	83,6	87,3	3,7
Suedia	88,7 (p)	87,4 (p)	90,0 (p)	2,6
Erresuma Batua	80,1	78,4	81,8	3,4
Euskadi*	78,5	76,9	80,1	3,2

p) Behin-behineko balioa. (i) Ikus oharrak: http://europa.eu.int/estatref/info/sdds/en/strind/innore_ir09.htm

*Euskadirako INEren datuak.


¹Balio positiboek derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute.

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.



Rs8.5 grafikoa:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (HNSN 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Europar Batasuneko 27 herrialdeetako datuak. 2011. urtea



Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunetik handienetik txikienera ordenatua, "Sexu biak" irizpidearen arabera.

*Euskadiko datuak INEK eman ditu.

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.